

## 7. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroarekiko edukiko duen harremana automatizatu izango da, web orri baten bitartez izango da. Zebitzu automatizatu bat eskainiko diegu bezeroei, web eta aplikazioaren bitartez. Bezeroak galdera edo zalantza bat izatekotan, gurekin kontaktuan jartzeko aukera edukiko du, telefonoz edo posta elektronikoaren bitartez. Bezero berriak erakartzeko sare sozialetan iragarki erakargarriak jarriko ditugu. Ondorioz, gazteen kopuru gehiena gure zerbitzua ikusiz gero, gure webgunera abiatuko da. Gure bezeroak beraien lan ideala aurkitu arte gure zerbitzuaz gozatuko dute eta prozezu horren ondorioz beraien interesa hasten doa.

Bezeroak probatu nahi duen lana erabakitzean, gure bulegora abiatu beharko lirateke kontratua sinatzeko eta beste hainbat dokumentu entregatzeko. Ondoren, gure lankide batek lan horri buruz informazioa eta nola lan egin behar den azalduko dio. Horrekin amaituta bezeroa lana hasteko prest egongo da.